



IHESAK ETA ISILUNEAK

Patria telesailaren 5. atala (HBO, 2020)

Iraupena: 52 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

DBH 4.

HELBURUAK

- + Terrorismoak gure herrian egindako ekintza izugarriak identifikatzea, horien ondorioei buruz hausnartuz, eta Euskal Herriko herri askotan ETA jardunean zegoen bitartean zegoen gizarte-giroa ezagutzea.
- + Terrorismoaren biktimen sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea. Mehatxuez eta hilketez gain, biktima horiek bazterketari eta bakardadeari aurre egin behar izan zioten.
- + Arrazoi ideologiko edo politikoengatik diskriminazioak edo indarkeria erabiltzeak berez dakarren bidegabekeria aitortzea.
- + ETArek mehatxu eta atentatuaren aurrean denbora luzez isilik egotea erabaki zuten euskal herritar askoren jokabideari buruz hausnartzea.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, jarduera egiteko ezinbestekoa izango da ulermenezko irakurketa eta ahozko adierazpen egokia.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzak baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 90 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 50 minutu telesailaren atala ikusteko eta 40 minutu ondorengo jarduerarako.

BALIABIDEAK

Patria telesailaren 5. atala (HBO, España). Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta gailu mugikorrak, hala nola smartphoneak edo tabletak. Arbel edo horma-irudi bat ere erabil daiteke.

EGILEA

Roncesvalles Labiano

IRADOKITAKO JARDUERA

Patria telesaileko 5. atala ikusi ondoren, ikasleak hiruzpalau pertsonako taldetan banatu, eta honako galdera hauek irakurtzeko eta erantzuteko eskatuko zaie. Erantzunak folio batean idaztea gomendatzen da.

Arantxa eta Guillermo

Arantxa Guillermorekin ateratzen hasi da, eta pozik dagoela dirudi, baina badaki herriko jende askori, Nerea lagunari eta Miren amari barne, ez zaiela gustatzen Euskal Herritik kanpo jaio izana, Hernández Carrizo abizenak izatea eta euskaraz ez hitz egitea. Amak bere buruari galdetzen dio ere: "Zergatik atera zaigu hain alaba okerra?". Hala eta guztiz ere, Arantxa eta Guillermo ezkondu egingo dira eta hirira bizitzera joatea erabakiko dute.

1

Zer uste duzue senti dezakeela Arantxak bere mutil-lagunaz ama edo bere laguna bezalako pertsonak zer pentsatzen duten jakitean? Eta Guillermok berak zer sentituko du horretaz konturatzen bada?

2

Zergatik uste duzue erabaki dutela hirira joatea? Zuen ustez, hobe zatekeen herrian geratzea, jendearen jarrera gorabehera?

Gorka eta Txato

Gorka hirira doa, bere arreba bezala, herrian aske ezin dela izan konturatzen denean. Urte batzuk geroago, bere aspaldiko auzokidea eta familiaren laguna, Txato, ETak hil duela jakingo du, bere anaia kideztat duen erakundeak. Gorkak aitari deitzen dio, eta handik gutxira lotsatu egiten da bere jarrera "koldarrarekin", alargunari idaztera eta bere bizilagunaren hilketaren ondoren jendaurrean hitz egitera ez ausartzeagatik. Berak egiten duen gauza bera egiten badute denek, ez da ezer aldatuko, pentsatzen du.

Urte askoan, euskal gizartearen zati handi batek Gorkak telesailean bezala jokatu zuen atentatuen aurrean: ETak egiten zuena ondo ez zegoela bazekiten ere, nahiago izan zuten isildu eta ez nabarmendu.

1

Zergatik uste duzue jokatzeko zutela horrela?

2

Zuen ustez, nola sentituko ziren biktimen senideak, isiltzea nahiago zuten pertsona horien guztien babesa jaso gabe?

PATRIA

2020

HBO
EUROPE





Bahearen Aldeko Koordinakundearen elkarretaratzea eta ETaren ingurunearen kontramaniestazioa Bilboko erdigunean, José María Aldaiaren bahu zutenean (1995/06/06). Herriar talde bat erditik pasatzen da. J. I. Fernández, El Correo.

Ondoren, talde bakoitzaren hausnarketak talde osoarekin partekatzeraz animatuko ditugu ikasleak. Horma-irudi bat edo arbel bat erabil daiteke elkarriketatik sortzen diren ideiak apuntatzeko.

Amaitzeko, azken galdera bat egingo da: ETak erabiltzen zituen metodoekin ados ez zegoen gizarte gehiena ez balitz isilduko ikusten zituen bidegabekeriaren aurrean, historia zerbait aldatu ahal izango zen?

Bertrand Russelengandik hartutako ideia honekin amaitu daiteke elkarren arteko hausnarketa: "Ez dago gure esku krimen guztiak saihestea, baina, gutxienez, isiltasunaren krimena saihets dezakegu".